

# azperruan zer?

udal aldizkaria

179. zenbakia

## LANPOSTU DUINAK SORTZEA ERRONKA

Langabezia eta enpresen egoera eskasa hobetzen ari da pixkanaka-pixkanaka; orain, lanpostuen kalitatea hobetzea du helburu Udalak



### LAGUNTZAK

Beharra duten herritarrei zuzendutako diru-laguntzak



### KULTURA

Zortzi sorkuntza proiektu berri abian dira Sorkuntza Bekari esker



## TELEFONO INTERESGARRIAK

|                                |              |
|--------------------------------|--------------|
| Zentralita                     | 943 15 72 00 |
| Alkatetza                      | 943 15 71 85 |
| Idazkaritza                    | 943 15 71 98 |
| Kontuhartzailtza               | 943 15 71 89 |
| Hirigintza                     | 943 15 71 91 |
| Gizarte Zerbitzuak             | 943 15 71 92 |
| Kultura                        | 943 15 70 68 |
| Komunikazioa                   | 943 15 79 82 |
| Kirolak                        | 943 15 00 95 |
| Parekidetasuna                 | 943 15 79 28 |
| Emakumeen Txokoa:              | 943 15 70 55 |
| Iturritxiki Ludoteka           | 943 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka           | 943 15 05 16 |
| Zapo Txoko                     | 943 15 71 61 |
| Gazte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |
| Eguneko Zentroa                | 943 15 74 96 |
| Liburutegia                    | 943 15 71 95 |
| Udaltzainak                    | 943 15 13 13 |
| Suhiltzaileak                  | 112          |
| Igerilekua                     | 943 81 41 21 |
| Kiroldegia                     | 943 81 30 69 |
| Izarraitz Pilotalekua          | 943 81 25 63 |
| Euskara Patronatua             | 943 81 45 18 |
| Udal Euskaltegia               | 943 81 19 47 |
| Lapatx Zaborteia               | 943 15 18 75 |



## BOTIKA TXANDAK

### ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74  
Urriaren 7, 8, 9, 14, 20 eta 25

### ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,  
Tel.: 943 81 13 50  
Urriaren 5, 12, 15, 16, 18, 24 eta 31

### BERISTAIN

Urbartarte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49  
Urriaren 6, 10, 19 eta 26

### EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74  
Urriaren 1, 2, 4, 11, 21, 27, 29 eta 30

### JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58  
Urriaren 3, 13, 17, 22, 23 eta 28

## ALE HONETAN ZER?

|                                 |    |
|---------------------------------|----|
| Azpeitia ezagutzen .....        | 2  |
| Laguntzak eta bekak .....       | 3  |
| Tokiko ekonomia .....           | 6  |
| <b>EKONOMIA SENDOTZEN</b> ..... | 10 |
| Kultura .....                   | 16 |
| Hobekuntzak .....               | 18 |

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Diseinua eta argazkiak:  
EREGL, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91

**AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.**

## AZPEITIA EZAGUTZEN



**INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!**

### KARLISTEN ALTAMENDUA

Karlisten erasoak 1871ko apirilean hasi ziren baina lehenagoko urteetan ere zenbait matxinada gertatu ziren. Horietako bat Azpeitian gertatu zen 1870ean. Badirudi altxamenduaren buruzagi gehienak elizgizonak zirela.

Agustin Jauregi Azpeitiko parrokiako apaizari, altxamenduaren ondoren egin zen epaiketa militarrean, bere kargua karlisten aldeko propaganda egiteko

baliatzea leporatu zioten. Altxamenduaren bultzatzaile nagusienetakoa izan zen.

Altxamendua 1870eko abuztuaren 29an lehertu zen. Badirudi arratsaldeko bostak inguruan parrokiaren koroko eskaileretako leihoetako barrote artetik banatu zituztela armak karlisten aldekoek. Herria soldadu liberekin husteko amua bota nahi zuten eta ondorioz Izarraitz aldera abiatu ziren soldadu liberekin atzetik jarrai ziezaieten.

# 515.000 € BIDERATZEN DITU UDALAK HERRITARREN BABES SOZIALA BERMATZEKO

**A**zpeitiko Udalak behar sozialei erantzun eta beharra duten herritarrek laguntzeko diru-laguntza zuzenak eta bestelako hainbat zerbitzu jarri ditu azken urteotan. Babes soziala, herritarren oinarritzko beharrak asetzea, ezinbestekoa da Udalarentzat, eta laguntza eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu horretarako; urtez urte gehiago.

Bide horretan, azken urteotan abian jarritako hainbat diru laguntzaren aurtengo deialdiak irekita daude, eta laguntza berri batzuk ere sortu ditu. "Gure helburua, Azpeitian bizi den orok oinarritzko beharrik ez izatea da. Hori lortzeko hainbat diru laguntza berezi jarri ditugu abian, edota zeudenak indartu ditugu", adierazi du Estitxu Elduairen Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak.

## 515.000 euro, laguntzetan

- **Haurren eskolaz kanpoko ekintzetarako laguntza. 25.000 €**
- **Helduen formakuntzarako laguntzak. 25.000 €**
- **Etxebizitzaren alokairurako laguntza. 200.000 €**
- **Babes sozialerako udal laguntza propioak. 100.000 €**
  - 1- 30.000 euro zergak ordaintzen laguntzeko
  - 2- 70.000 euro etxebizitza alokairua, kreditua, argindarra... ordaintzen laguntzeko

## • Taldeetara bideratzen diren diru laguntzak. 165.000 €

- 1- Osasun edo gizarte osasungintzako taldeentzako laguntza. 75.000 euro
- 2- Nazioarteko kooperazioa 90.000 euro.

**Laguntzen inguruko informazioa jaso edota laguntzaren bat eskatu nahi dutenek Azpeitiko Udalaren Gizarte Zerbitzuetara jo dezakete. Horretarako bi modu:**

- **Udaletxean (Plaza Nagusia, 5) 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera**
- **Deitu 943157192 telefonora, bulego orduetan edo idatzi gizartezerbitzuak@azpeitia.eus-  
era.**

## LAGUNTZA ZUZENEN BIDEZ, 100.000 € BABES SOZIALERAKO

**H**erritarren ongizatea garrantzitzeko 100.000 euro bideratu ditu Udalak. Batetik, beharra duten herritarrei zuzendutako udal laguntza zuzenentzako 70.000 euro bideratuko ditu, oinarritzko beharretarako.

Diru-laguntza horietarako diru-poltsa propioa jartzen du Udalak azken urteetan, Eusko Jaurlaritzatik etortzen diren laguntzak osatu eta herritar gehiagorengana iristeko.

Horrez gain, kontribuzioa ordaintzen

laguntzeko baliabide gehiago jarri ditu aurten Udalak, "eta diru-laguntza hori orain arte jasotzen zuten herritarrek baino gehiagok jaso ahalko" dutela adierazi du Leire Goenaga zinegotziak. 30.000 euro jarri ditu horretarako.

Diru-laguntzak jasotzeko gutxienez lau urtez egon beharko da Azpeitian errolatuta eta diru-sarreraren araberrakoak izaten dira.

Udalarentzat lehentasunezkoa da ahalik eta babes sozial sendoena

eskaintzea. Iaz, adibidez 126 familiak jaso zuten Udalak propio ematen dituen diru-laguntzaren bat, eta helburua da aurten familia gehiagorengana iristea: "Herritarren oinarritzko eskubideak bermatzea ezinbestekoa da, beharra dutenei bizimodu duina eskaintzeko baliabideak jartzea, eta horregatik gero eta baliabide gehiago jartzen ari gara", dio Esti Elduairen zinegotziak.

"Ahalik eta herritar gehienengana iristeko ahaleginetan" ari direla gaineratu Goenagak.

## ETXEBIZITZA IZATEA ESKUBIDEA DELAKO, ALOKAIURAKO LAGUNTZAK



**U**dalak eskaintzen dituen etxebizitza alokairua ordaintzeko laguntzak abian dira, eta herritarrek urriaren 15a bitartean aurkeztu ditzakete eskariak. Azken urteotan 200dik gora herritarrek jaso dute laguntza hori, eta aurten ere 200.000 euro diru poltsa jarri du Udalak.

Azken urteotan, urtez urte, gero eta eskaera gehiago jasotzen dituen laguntza da alokairuarena: "Herritarren beharretara egokitzen joan gara laguntza horiek, eta gazteentzako izaten hasi baziren ere, gaur egun etxebizitza eskubidea bermatua izateko zailtasunak dituzten beste hainbat kolektibori ere zuzentzen dizkiegu laguntzak", azaldu du Ainara Larrañaga zinegotziak. Hala, orain 18 eta 35 urte bitarteko gazteez gain, mugikortasun urriko pertsonak edo/eta ezgaitasunen bat dutenak, banadu edo dibortziatuak, 70 urtetik gorako pertsonak eta alargunak ere jaso ditzakete. Udalak etxebizitza politika berri bat diseinatzeko hartutako lehen erabakietakoa izan

zen laguntza horiena. Aurten, herriko etxebizitza beharrak aztertu eta behar horietan sakontzeko ikerketa egin du: "Etxebizitza beharrak zeintzuk diren, eta herritarren nahiak zeintzuk diren aztertu nahi izan ditugu, ondoren, gure herrira egokitutako etxebizitza politika sustatzeko", dio.

### NORK ESKA DEZAKETE

- **18 eta 35 urte (hau barne) bitarteko adina duten gazteak.**
- **Mugikortasun urria duten pertsonak (edozein adinetakoak) edo/eta ezgaitasun absolutoa dutenak.**
- **Bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak. Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxebizitza ezkonkide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gai-nontzean beste etxebizitza bat alokatuko behar balute.**
- **70 urtetik gorako pertsonak.**
- **Alargunak.**

### • Laguntzak, diru-sarreraren arabera

#### • 0,00 € - 15.000,00 €:

**Alokairuaren % 50**

#### • 15.000,00 € - 21.000,00 €:

**Alokairuaren % 40**

#### • 21.000,00 € - 30.000,00 €:

**Alokairuaren % 30**

#### • 30.000,00 € - 35.000,00 €:

**Alokairuaren % 20**

### ALDE ZAHARREAN LAGUNTZA GEHIGARRIA

Alde Zaharra biziberritzeko Udalak duen apustuaren baitan, alokatutako etxebizitza gune horretan badago, hilean 50 euroko laguntza gehigarria jasoko dute eskatzaileek.

Diru-laguntza gehienez hilean 250,00 euro eskaera bakoitzeko izango da eta gehienez 12 hilabeteko epealdi batetarako. Udalak gogorarazi nahi du aurreko urteetan laguntza jaso dutenak ere urtero egin behar dutela eskaera.

## HAUR ETA HELDUEN FORMAZIORAKO 50.000 EURO

**H**erriar prestatuak izatea da herri baten etorkizuna bermatzeko tresnarik eraginkorrenetakoa. Horren jakitun, Udalak Azpeitian bertan eskaintzen den formaziorako eskaintza indartu eta zabaltzeko konpromiso sendoa hartua du. Horretaz gain, ordea, ikasteko edo formatzeko dirua oztopo izan ez dadin, haur zein helduentzako formaziorako bekak ditu abian, azken urteotan.

Guztira, 50.000 euroko diru poltsa du ikasketak bermatzeko beketan; 25.000 eskolaz kanpoko haurren jardueretarako, eta beste 25.000 euro helduen formaziorako.

### 25 URTETIK GORAKOENTZAKO

Langabezian dauden edo lanaldi erdian diharduten 25 urtetik gorako

herriarrei zuzenduriko laguntza da. Laguntza honen bidez Lanbide Heziketan edo formazio profesional teknikoa ikasten ari diren herritarrak lagundu nahi dira. Matrikularako, garrariorako edo ikas-materiala erosteko laguntzak ematen dira.

**IAZ, 69 LAGUNEK  
JASO ZUTEN ESKOLAZ  
KANPOKO JARDUERA  
EDO FORMAZIORAKO  
UDALAREN LAGUNTZAREN  
BAT**

laz ireki zen laguntza linea hori lehen aldiz eta 19 lagunek jaso zuten laguntza.

Guztira 5.000 euro eman ziren laguntzetan. Ikasturte berrirako deialdia irekita dago eta abenduaren 10a bitartean 2017-2018 ikasturteari dagokion laguntzak eskatu ahal izango dira, Gizarte Zerbitzuetan.

### ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAKO BEKA

Haur eta gazteei eskolaz kanpoko jarduerak bermatzeko, aisi zein ikasketetarako lagungarri diren ikastaroak laguntzen dira (hizkuntzak izan ezik). "Laguntza horiek urtez urte indartzen ari gara. Gero eta familia gehiago baitira laguntza hau eskatzera datozenak", azaldu du Leire Goenagak Hezkuntza zinegotziak.

laz, laguntza jasotzeko baremoak zabaltu ziren eta 50 familiak jaso zuten laguntza.

## TALDEEN BIDEZ ERE LAGUNTZA EMANEZ

**U**dalak zuzenean ematen dituen laguntzez gain, herriko gizarte eragileen bidez ematen dizkion laguntzen bidez ere laguntzen ditu proiektuak. Hala, Gizarte ekintzarako taldeen laguntzak zein nazioarteko kooperaziora 165.000 euro bideratzen ditu.

### HERRIKO TALDEENTZAKO LAGUNTZAT

Osasun edo gizarte-osasungintza arloan lanean diharduten herriko taldeei bideratutako laguntza da. Horretarako 75.000 euroko diru poltsa jarria du Udalak. Eta aurten, adibidez, arlo desberdinetan lanean ari diren 23 talde edo eragile lagundu dira.

**GIZARTE EKINTZAKO  
TALDEAK LAGUNTZEKO 75.000  
EURO JARTZEN DITU UDALAK  
ETA 90.000 EURO NAZIOARTEKO  
KOOPERAZIO PROIEKTUAK  
LAGUNTZEKO**

### NAZIOARTEKO KOOPERAZIOA

Gobernuz kanpoko erakundeei nazioarteko kooperazio ekintzetarako 90.000 euro bideratzen ditu Udalak. Hala, Mexico, Salvadorko bi proiektu, Swaziland, Rwanda, Saharako errefuxiatu kanpamentuetakoa eta Nikaraguako beste bat lagundu dira azken urtean diruz.

Horretaz gain, lau hilabetez edo gehiagoz gobernuz kanpoko erakunderen batera laguntza ematera joan diren edo joan nahi duten herritarrentzako diru laguntza linea berri bat ere jarri zuen iaz.

# BASAZABAL JAURREGIA: IRAGANA ETA ETORKIZUNA LOTZEN DITUEN ERAIKINAREN ERABERRITZEA

**BASAZABAL ERAIKINA ERABERRITZEKO OBRAK HASI DIRA; GIPUZKOAKO JAUREGI URBANO ZIBIL BAKARRAK TURISMO BULEGOA ETA FORMAZIO ZENTROA BILDUKO DITU 2018KO UDATIK AURRERA**



**E**kainaren hasieran hasi ziren Basazabal jauregi urbanoa eraberritze-ko barruko obrak. Gipuzkoan dagoen jauregi urbano zibil bakarra da Enparan Klean dagoena. Kanpotik ederra da, oso. Baina barruan du benetako xarma.

XIV. eta XV. mendeen artean eraikia da eraikina eta Espainiako Kultura Ministerioak 1964an monumentu historiko gisa aitortu zuten, eraikinaren interes historiko eta artistikoagatik. 1984an, berriz, Eusko Jaurlaritzak ondare kultural aitortu zuen, monumentuen kategoriaren barruan. Eraikina duela 35 urte birgaitu zuten, baina 35 urte erabili gabe egon ostean, kalte handiak ditu, eta eraikinaren eraberritzea egitea erabaki du Udalak. Horretarako proiektua egin du, eta 700.000 euroko aurrekontua duen eraberritzea abian jarri du.

**ERAIKINA ERABERRITZEKO  
600.000 EURO INGURU LORTU  
DITU UDALAK EUSKO  
JAURLARITZA ETA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO  
DIRU-LAGUNTZETATIK**

Eraikinaren eraberritzea ordea, proiektu zehatz bati lotuta egin nahi izan du Udalak. Hau da, eraberritzea bukatzearekin bat, jauregia irekita eta erabilgarri izango da. Bide horretan, eraberritzearen finantzaketara bi hitzarmen ere lortu ditu. Teilatua konpontzeko lanekin hasi zen eraikinaren eraberritzea, horretarako Eusko Jaurlaritzak laguntza eman zion Udalari. Ondoren, beste laguntza baten bidez 300.000 euroko lagun-

tza jaso du. Orduan, beste hainbat azterketa ere egin ziren. Orain, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiren 200.000 euroko laguntza jaso du.

Urte luzez, itxita izan da, eta duela urtebete ingurutik Udala eraberritze-ko proiektua eta baliabideak lortzen aritu da. Eneko Etxeberria alkateak, eraikina eraberritu eta beste erakundeekin hori egiteko hitzarmenak sinatzearen garrantzia aipatu du: "Iragana etorkizunari begira jartzen dugu hitzarmenekin. Ondarea bera berreskuratu, balioan jarri eta erabilera ematea da gure helburu". Eta Basazabalerako Udalak duen proiektuarekin lortuko da guzti hori.

## TURISMOA ETA FORMAZIOA

Basazabal eraikina faseka eraberritzen ari dira. Lanak 2018. urteko erdi alderako bukatuta izatea aurreikusten du Udalak.

Eraikinak 5 solairu ditu, lehen bi solairuak turismora bideratuko dira, eta gaur egun Sindikatu Zaharrean kokatzen den turismo bulegoa lekuz aldatuko da, eta interpretazio zentru bat egitea ere aurreikusten da bertan. Goiko beste bi solairuetan, berriz,


formazio zentrua sortzea aurreikusten du Udalak. "Azken urteotan baliabide eta esfortzu asko egin dugu herritarren formaziorako eskaintza zabaltzen. Ikastaro ugari izaten dira gaur egun gurean, eta horiek guztiak eraikin batean kokatu eta zentralizatzeko

beharra ikusten dugu", adierazi du. Hala, gela multifuntzionalak izango badira ere, formakuntza saioek izango dute lehentasuna bertan.

Azken solairu berezia, berriz, eginkizun anitzetarako prestatuko da.

# DATU ONAK ETA SENTSAZIO HOBEAK UTZI DITUZTE TURISTEK UDAN

**BISITA GIDATUEZ GAIN, AURTENGO UDAN  
HERRIKO ERAIKIN HISTORIKOAK NAHIERAN  
IKUSTEKO AUKERA IZAN DA AURREZ  
TURISMO BULEGOAN ADOSTUTA**



**U**dako opor garai nagusia bukatu bada ere, Azpeitiko kaleetan oraindik ere ikus daitezke, astegun zein asteburuetan, herria ezagutzera etorritako turista eta bisitariak. Abuztua bukatuta iazko abuztuan Udalak abian jarri zuen Turismo bulegoan jasotako datuak plazaratu nahi izan ditu. Bulego honen helburu nagusia Loiolara zein Burdinbidearen Euskal Museora etortzen direnak herrira erakartzea da.

Urtebete honetan hainbat aurrerapauso eman dira; besteak beste, herritarrak eta euskara bisitarienztzat erakargarri egiteko apustua egin du eta *azpeitibizi* ataria jarri du abian eta herriko hainbat txokotan bisitarienztzat interesgarri izan daitezkeen panelak jarri dira, herria hobeto ezagutzeko aukera izateko.

**GERO ETA GEHIAGO DIRA  
AZPEITIKO ALDE ZAHARRA  
BISITATZERA DATOZEN TURISTAK;  
AURTEN BIKOIZTU EGIN DA  
ATZERITIK DATOZENEN KOPURUA**

## BALORAZIO POSITIBOA

Udala "gustura" dago Turismo bulegoak ematen dituen datuekin: "Guk jendeak Azpeitia ezagutzea nahi dugu; Azpeitia bizitzea. Azpeitiarenztat turismo jasangarria, turismo bizia eta orekatua izatea dugu helburu", azaldu du Agustin Lizarralde. Turismo zinegotziak. Azpeitiko

turismo bulegoak 1.561 bisitari jaso ditu aurtan abuztua bukatu bitartean. Abuztuan, iazko kontsulta kopuru oso antzekoa jaso du 413 guztira. Bisitari gehienak Espainiatik etorritakoak izan dira, % 62a. Atzeritik etorritakoen kopuruan gora egin du iazko %9tik bikoiztu egin da eta %18a izan da aurtan, eta behera egin du Euskal Herriatik etorritako bisitarien kopuruak. Abuztuan, astearte eta igandetan bisita gidatuak egin dira, eta herriko ondarea nahieran ezagutzeko aukera ere izan da turismo bulegoarekin harremanetan jarrita. "Bisitariak zein herritarrei zerbitzu pertsonalizatua jasotzeko aukera eskaini dugu aurtan. Aurrez abisatuz gero doan bisitak adosteko aukera, Madalenako ospitalea zein beste zenbait eraikin bisitatzeko eskaintza egin dugu", dio.

# AZPEITIA TXARTELA: TOKIKO EKONOMIAREN ALDEKO APUSTU SENDOA

**MERKATARI TXIKIA BABESTU, TOKIKO EKONOMIA BULTZATU ETA AZPEITIA TXARTELA HERRIKO TXARTEL BAKAR BIHURTZEKO APUSTUA EGIN DU UDALAK BERTAN MERKATARI ELKARTEAREKIN BATERA**



## 'GEUREA DA'

Herritarren txartela delako, azpeitiarra eta Bertaneko eskaintza berezi eta fidelizaziori lotutako promozioetaz baliatzeko aukeraz gain, herriko txartel bakar bihurtzea da helburua.

Hau da, zenbait udal zerbitzutan, igerilekuan edo liburutegian, Azpeitia txartela bazkide txartel izateko aukera dute herritarrek. Hala, helburua da Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztietan ere Bertan txartela erabiltzeko aukera izatea: "Hori da Udalaren erronka. Azpeitiarrok geure txartela izatea, eta txartel bakar batekin hamaika gauza egiteaz gain herritarrek babestea", gaineratu du.

**H**erri baten garapenean eta bizitzan ezinbesteko dira denda eta komertzio txikiak. Azpeitian, ekonomiaren gako garrantzitsu dira; herriari bizia emateaz gain, lanpostu ugari sortzen dituztelako. "Horregatik, eta herria egiten laguntzen digun sare garrantzitsua delako, bultzatzen dugu Udaletik ere txartelaren proiektu anbiziotsu hau", dio Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak.

Krisi ekonomikoak eragin handia izan du merkataritza txikientzat, baina langabezia baxuaren eraginez eta herriko industriaren osasun egonkorra medio badirudi kontsumoa hasia dela goraka.

Hala ere, merkataritza txikiek badituzte

erronkak, horietako bat Interneteko erosketak: "Erronka handia da Interneteko erosketek aurre egitea, baina Azpeitia Txartela bezalako proiektuekin gure merkataritza sendotzea da helburua", azaldu du Etxeberriak.

**AZPEITIA  
TXARTELA MERKATARI  
TXIKIEN FIDELIZAZIO TXARTELA  
IZATEAZ GAIN, HERRIKO HAINBAT  
ZERBITZUTAKO TXARTEL GISA ERE  
ERABILI DAITEKE. ETA PIXKANAKA  
ZERBITZU GEHIAGOTAN  
ERABILTZE DA  
ERRONKA**

## KONTSUMO OHITUREN AZTERKETA

Merkataritza mahaiaren helburua da eskualdeko merkataritza txikiaren sustapena, eta horretarako eragile ezberdinen artean lankidetzat proiektuak sustatzen ditu. Hori horrela izanik, herritarren kontsumo ohiturak eta eskualdeko merkataritzaz duten iritzia ezagutzeko inkesta egin da herritarren artean. Besteak beste, eguneroko nahiz aldizkako erosketaren inguruan galdetzeaz gain, gaur egun azalera handiko erosketak guñeez nahiz Internetek herritarren eros ohituretan duten garrantziaren inguruan galdetu zaie.

Eraitza eta ondorio nagusiak urriaren 24ean aurkeztuko dira Azpeitian.

# LEHEN SEKTOREAREN MOTORRA ABIATU DA; AZOKA PLAZA BERRITUA MARTXAN DA



**LEHEN SEKTOREA INDARTU ETA  
BERTAKO PRODUKTUEN ALDE EGINEZ  
TOKIKO EKONOMIA BULTZATZEKO  
PROIEKTUA ABIATU DU UDALAK  
AZOKA PLAZAN; UZTAILEAN  
IREKI ZEN BEHIN-BEHINEAN**

## **ELIKAGUNEA, ESLEITUTA**

Azken hilabeteotan, elikagunearen kudeaketa esleitu du Udalak eta irabazi asmorik gabeko Artxara Kooperatiba Elkarte Txikiaren esku geldituko da bertako produktuen salmentarako saltokia. Udalaren aurreikuspenen arabera urtearen bukaerarako jarriko da abian.

**A**zpeitiko azoka plaza, behin-behinean bada ere, abian da uztailearen erdialdetik. Uztailetik herriko baserritarren eta lehen gaien plaza eta motore bilakatu da.

Pixkanaka-pixkanaka, Udalak landu eta abian jarritako eredu propioa duen azoka plaza forma hartzen ari da. Ereditu propioa osatzeko pausoak ari da ematen. Plaza multifuntzionala izango da, eta ohiko bertako nekazarien azokaz gain, urtea bukatzerako abian jarriko den elikaguneari osatuko du.

Elikaguneari janari-denda, harategia, plater prestatu ez industrialen obradorea, eta ostalaritza eta aisialdi-jardueretarako establezimendua elikagai produktuen eta proiektuen aurkezpenerako eta dastaketarako

txokoa, zuzeneko sukaldaritza jarduerak egiteko guneak izango ditu.

**AZOKA PLAZA ABIAN  
BADA ERE, ELIKAGUNEA  
URTEAREN BUKAERA ALDERAKO  
BUKATUTA ETA MARTXAN EGOTEA  
AURREIKUSTEN DU UDALAK**

Bertako ekonomia sustatu eta indartzeko egin da apustua hasieratik. Azoka plazako baserritar eta beste hainbat eta hainbat eragile sozioekonomikorekin elkarlanean landu eta osatu du proiektua Udalak, hilabete luzez.

Proiektu bakarra aurkeztu zen lehiaketa publikora, eta kontratazio mahaia teknikoki balorazio altua eman zion proiektuari eta uztaileko plenoan eman zitzaion onespena, aho batez, esleipenari.

Bertako jatorria duten elikagaiak oinarri hartuz, horien salmenta, sukaldatze, dastatze eta aurkezpen zerbitzuak eskaintzera bideratuko den gunea izango da. Bertako jatorria duten elikagaiak zehazterakoan, Azpeitiko azoka plaza zentru fisiko bezala hartuta, 150 kilometroren erradioan ekoiztutako elikagaiak kontutan hartuko dira.

Lagapena 10 urtetarako egiten du Udalak eta esleipendunak hilero 1.000 euroko kopurua ordaindu behar du.

# EKONOMIA ETA LANGABEZIA EGONKORTUTA, LAN BALDINTZAK HOBETZEKO APUSTUA

LANGABEZIA DATU GERO DATU BAXUAGOA DAGO AZPEITIAN; EKONOMIA ETA LAN MERKATUA EGONKORTU DIRELA DIRUDI; HALA ERE, UDALA LANPOSTU DUINAK SORTZEKO BURU-BELARRI ARI DA LANEAN

Urte eta une gogorak bizi izan ditu azken urteotan Azpeitiko ekonomiak. Ehundaka herritar langabezian izan dira, eta enpresa txiki naiz handiak ixten ikusi behar izan ditugu. Horren jakitun, Azpeitiko Udalak determinazio osoz Udaleko arlo eta sail guztiak ekonomia indartuz langabeziari aurre egiteko neurriak hartzera bideratu zituen. Eta emaitzei begiratuta, erronkari ondo eutsi diola esan dezakegu.


Iraileko herriko langabezia %9,1-ekoa izan da, eskualdekoa %9,7-koa, Gipuzkoakoa %10,3-koa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa %12,6-koa diren bitartean.

**IRAILEKO LANGABEZIA  
TASA %9,1-EKOA IZAN DA  
AZPEITIAN; ESKUALDEKOA  
%9,7, GIPUZKOAKO %10,3  
ETA EAEKOA %12,6 DIREN  
BITARTEAN**

Azpeitian, iazko irailean baino 168 langabetu gutxiago zenbatu dira irailaren bukaeran, 630 herritar zeuden langabezian, hain zuzen ere.

Datuak onak badira ere, Udalak abian jarritako zerbitzu, neurri eta laguntzak bere horretan mantentzen ditu, nahiz eta helburua zabaltzen joan: "Datuak datuak dira. Egia da langabetu kopurua pixkanaka behera doala, eta gure tamainako herriein alderatuta, langabetu kopuru txikia dugula. Baina langabetu bakar bat dugun bitartean, ezin dugu pozik egon. Lana izatea guztion eskubidea da, eta horri erantzun nahi diogu", adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

## Lurraldekako langabezia indizea, 2017ko Iraila



Iturria: Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua. Urola Erdiko datuak IB-en estimazioak dira.

Afiliatu kopuruari begiratzen badiogu ere, datua positiboa da; iazko irailean baino 281 afiliatu gehigo ziren irail bukaeran Azpeitian.

### FORMAZIOA TRESNA GARRANTZITSUA

Udalak, behin-behineko eta momentuko langabeziari aurre egiteko baliabideez gain, etorkizunera begira berriro krisiak herria hain gogor jo ez dezan herritarren formazioan eragin nahi izan du. Hala, Deusto edo UEU bezalako unibertsitateekin beraien eskaintza herrira ekartzeko akordioak lortzeaz gain, beste hainbat erakunderekin ere elkarlanean jarraitzen du eta titulazio propioa duten ikastaroak ere eskaintzen ditu Udalak.

“Guretzat ezinbestekoa da langabeziari aurre egiten jarraitzeko eta herritarrek lan munduan sartzeko formakuntza. Etorkizunerako inber-

tsio onena dela uste dugu, bai Udalarentzat eta baita herritarrentzat ere”, adierazi du Estitxu Elduainen zinegotziak.

**AZPEITIKO EKONOMIA  
SOZIALA EREDU DA  
GIPUZKOAKO BESTE  
HAINBAT HERRIRENTZAT**

Bide horretan, eskaintza zabal-tzen joateko elkarlana bilatzen segituko dutela berretsi du. “Di-tugun hitzarmenez gain, gehiago izateko lanean ari gara, herrita-rrentzako eskaintza hobetu eta zabaltzeko”.

### LANPOSTU DUINAK HELBURU

Langabezia eta afiliatu kopuruen datuak hobetzen badoaz ere, ez da gauza bera gertatzen lanpostuen kalitatean: “Ez da erraza sortzen diren lanpostuak nolakoak diren neurtzea eta hor eragitea, baina nabarmena da, sortzen den enplegua ez dela krisi aurretik sortzen zenaren berdina. Langileen lan baldintzak eskatu egin dira, prekaritatea handitu eta horrek ondorio larriak ekarri ditu gurer”, adierazi du Etxeberriak.

Lan istripuz bi herritar hil ziren uztailan eta abuztuan, eta istripu gehiago ere izan dira azken hilabeteotan. Udala oso kezkatuta dago gai horren inguruan, eta dituen eskumenetatik egin dezakeena aztertzen ari da. Hala, sustapen ekonomikora laguntzen edo zuzenean zein Iraurgi Berritzaren bidez eskaintzen dituen zerbitzuen bidez lanpostu duinak sortzeko neurriak hartzen ari da.

# EKONOMIA SENDOTZEKO, LAU ARDATZEN BAITAN, LAGUNTZAK ESKAINTZEN DITU UDALAK



**K**risi ekonomikoaren urterik gogorrenetan, enpresak egoera larrian eta langabezia datu kezkarriak ziren unean, 2013. urtean Udalak hitzetatik ekintzetara egiteko pauso garrantzitsua eman zuen herriko ekonomia indartzeko sustapen ekonomikorako diru laguntzak abian jartzean. Ordutik, urtez urte gero eta eskaera gehiago jaso dira, eta gero eta ezagunagoak dira herritarren artean ere. “Laguntza horiek garatzerakoan gure harreman sarea jarri genuen martxan; eragileekin bildu ginen. Beharrak aztertu eta landu ostean osatu genituen laguntzak, eta urtez urte herritarren beharretara egokitzeko ahalegina egin dugu”, adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

laz, lehen aldiz diru guztia banatu zela azaldu du Estitxu Elduaiein zinegotziak: “Urtez urte gero eta eskaera gehiago jaso dira. Iaz 89 eskaera jasota, diru guztia banatu zen”. Horregatik,

aurten, diru kopurua handitu du Udalak, eta 350.000 euroko diru-laguntza da.

**IAZ 89 ESKARI  
JASO ZIREN ETA  
300.000 EUROAK BANATU  
ZIREN; AURTEN 50.000 EURO  
GEHIAGOKO DIRU POLTSA  
JARRI DU SUSTAPEN  
EKONOMIKORAKO UDALAK**

“Herrian emaitzak ikusten ditugu, abian jartzen diren proiektuen berri izaten baitugu. Horretaz gain, ordea, beste hainbat Udaletatik ere etorri izan zaizkigu laguntzen inguruko informazio eske, eta hainbatek jarri dituzte abian, gure antzera”, aipatu du Etxeberriak.

Beste hainbat faktorearen artean, Azpeitiko langabezia tasa baxua laguntzen ondorio ere badela uste du Etxeberriak: “Langabezia tasa baxua dugu, baina lanpostuen prekaritateak eta lan baldintza eskasek asko kezkatzen gaituzte. Horri aurre egiteko ere badira laguntza hauek. Krisi aurretik baino soldata eta baldintza eskasagoak ditugu gaur egun orohar, eta horri aurre egitea dugu erronka”, zehaztu du.

**1. Enpleguaren sorrera helburu duten proiektu ekintzaileak eta izaera soziala dutenak sustatzeko laguntzak. Gehienez, 40.835 € bideratuko dira.**

Helburu soziala duten proiektuak ekintzaileak lagunduko dira eta inplizitu balore solidarioak, komunitarioak eta gizarte-justiziakoak barneratzen dituztenak eta gizartearen onurakoak direnak.

## 2. Merkataritza sektorean eta/edo lehenengo sektorean enplegua eta ekonomia sustatzeko laguntzak. Gehienez, 46.665 € bideratuko dira.

- Langileak kontratatzea.
- Merkataritza arloko lehiakortasuna eta lehen sektorea sustatzeko ekintzak edo jarduerak egitea.
- Lehen sektoreko herriko produktuen kontsumoa.
- Lokalek edo komertzioek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak egokitzeko eta behar berrietara moldatzeko (adibideak modu orientagarrian: lokalak handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakusleihoak berritzea, etabar).
- Lehenengo sektorea ezarri, eraberritu edo finkatzea.
- Azpeitiko Alde Zaharrean, Nuarbe auzoan eta Urrestillan merkataritzako edo lehen sektoreko jarduerak jartzea.

PROIEKTU EKINTZAILEAK,  
SOZIALAK, MERKATARITZA KOAK,  
LEHEN SEKTOREKOAK, ENPLEGUA  
SORTZEEN DUTENAK ETA GIZARTE  
EKONOMIAN ESTRATEGIKOAK  
EDO BERRITZAILEAK DIRENAK  
LAGUNTZEN DIRA

- Azpeitiko Alde Zaharrean merkataritzako edo lehen sektoreko jarduera xede duten lokalen alokairuak.

## 3. Enplegua sortu edo mantentzen duten industria-proiektu estrategikoak eta berritzaileak eta inbertsio proiektuak. Gehienez, 192.500 € bideratuko dira.

Enplegua sortu eta mantentzeko zailtasunari aurre egiteko laguntza lerroa da honakoa. Diru-laguntza hau jaso ahal izango dute deialdia argitaratu aurretik sortuak dauden eta 250 langile baino gutxiago dituzten enpresek.

Enpresa txiki eta ertainentzat askotan zaila izaten da industria-proiektu estrategikoak gauzatu eta garatzea edo instalazioak egokitu edo erosteko inbertsioak egitea eta horretan laguntzen du lerro honek.

## 4. Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueratan enpleguaren sorrera bultzatzeko diru-laguntzetarako, gehienez 70.000 € bideratuko dira.

Edozein izaera juridikopean sorturiko enpresa jarduera sortzeagatik, jarduera burutzen duena pertsona fisikoa edo pertsona juridikoa dela laguntzen da. Lehen aldiz autonomo jartzen diren eta bere kontu lanean hasi berriak laguntzen dira lerro honetan.

Laguntza jasotzeko ez da ofizina fisikorik behar, etxetik lan egin edo lantegiren batean autonomo hasi berri diren pertsonen ere jaso dezakete.

# BESTE HAINBAT HERRIRENTZAT EREDU

**A**zpeitiko Udalak herritarren ekonomian eraginez lanpostuak sortu eta formakuntzaren bidez herritarrak lan munduratzeko hartutako bideak oihartzuna izan du beste hainbat herritan.

Hala, beste hainbat herritako Udal ordezkariak Udalarekin harremanetan jarri izan dira formazio eskaintza zabalaren lortzeko emandako pausoak zehintzuk diren jakiteko; edota sustapen ekonomikoaren bidez ematen diren laguntzak nondik norakoak diren jakin eta beren herrietan nola abian jarri daitezkeen jakiteko, tartean, Arrasateko Udal ordezkariak.



# INDUSTRIAREN ERRONKEI ELKARLANEAN AURRE EGITEKO LANEAN

HISTORIA, TAMAINA ETA SEKTORE DESBERDINETAKO ENPRESAK BISITATZEN ARI DA UDALA, ENPRESEN ERRONKEI AURRE EGINEZ LANGILEEN BALDINTZETAN ERAGITEKO ASMOZ



**H**erriko industriaren egoeran eraginez langabezian eta langileen lan baldintza eta bizi kalitatean eragiteko erronkaren baitan, Azpeitiko Udal arduradunak industria sarearekin etengabeko elkarlana bilatzen dute. Bide horretan, Iraurgi Berritzenen bidez abian dituen industria proiektu eta sareez gain, aurrez aurreko harremana izan eta industria osatzen duten pertsonak, langileak eta erronkak ezagutzeko bisitak egiten ari dira Udal ordezkariak.

Bide batez, sustapen ekonomikorako laguntza edo bestelako hainbat zerbitzuren emaitzak ikusi eta iritziak elkartrukatzeko ere aprobetxatu dute ordezkariak.

Azken hilabeteotan historia, sektore eta tamaina ezberdinetako enpresak bisitatu ditu Udalak. Tartean, Azpeitiko enpresa sarea osatzen duten hainbat enpresarekin Hazparneko areonautika enpresa ezagutu eta elkarlan eta lan aukerak sortu eta lantzeko asmoz Lauak enpresa bisitatu dute.

### HAZPARNERA, ELKARLANA BILATZEKO ASMOZ

Udala herriko zein inguruko beste hainbat enpresarekin eta Iraurgi Berritzeneko arduradunekin batera Hazparneko Lauak enpresan izan da, enpresa ezagutu eta enpresen arteko ezagutza sustatu eta lan aukerak aztertzeko.

Lauak enpresa Lapurdiko enpresarik handienetakoa da; 545 langile ditu Hazparneko lantegian, baina beste 3 lantegiekin (Frantzia eta Portugalen ditu) batera 1.500 langile inguru ditu. Aeronautikarako pieza desberdinen hornitzaile handia da eta lan eremu horretan ari diren Azpeitia eta inguruko Glual, Zubiola, Talleres Mecánicos Murua, Munibe Group eta Mecanizados Tracer enpresak izan dira egoitza bisitatzen. "Hazparne eta Azpeitia herrien arteko senidetza sinboliko eta herritarren artekoa izateaz gain, industria, instituzionala... izateko lanean ari gara. Gure

herriko enpresek Hazparnen dituzten aukerak ere lantzea dugu helburu eta horixe lortu nahi izan dugu bisita honekin", adierazi du Eneko Etxeberria alkateak. Hazparneko enpresekin izandako lehen kontaktua izan da, baina ez da azkena izango.

LANGABEZIARI AURRE  
EGITEKO EZINBESTEKOTZAT DU  
FORMAZIOA UDALAK ETA 200.000  
EURO JARRI DITU HERRITARREI  
KALITATEZKO IKASTAROAK  
HERRIAN ESKAINTZEKO

## ENPRESA INDUSTRIALEN ERRONKAK, BERTATIK BERTARA



### ENPRESAK HERRIRA ERAKARTZEN: ORMOLA

Aurten, azken urte luzeetan gertatu ez bezala, enpresak Azpeitira etortzen hasi dira. Horietako bat izan da Ormola enpresa. Azkoitiko egoitza zaharra utzi eta etorkizuneko erronka berriei heltzeko enpresa berria eraiki dute Azpeitian.

Enpresa arduradunek egoitza berria etorkizuneko erronkei erantzuteko erosoagoa eta modernoagoa dela adierazi dute, eta enpresaren itxura eta bezeroei eskaintzen zaien arreta asko hobetuko dela uste dute: “Lehen genuen tailerraren laukoitza da oraingoa. Makina berriak ekarri ditugu eta langile berriak ere hasi dira gurekin lanean”, adierazi du Gorka Sudupe enpresako kudeatzaileak. Etorkizun laburrean enpresak langile berriak kontratatzen jarraitzeko asmoa ere azaldu du.

Era berean, Azpeitiko Udalak sustapen planaren bidez eskainitako laguntzak ezinbestekoak eta erabakiorrak izan direla azpimarratu dute, egoitza kokapen berrira ekartzeko.

Bide horretan, udal arduradunek herrian enpresa berri bat hartzea pozgarria dela uste dute.

### DIBERTSIFIKAZIOAN, BATUTA: FUNDIBIDE

Fundibide enpresa 1988an sortu zuten lau bazkidek, baina 29 urte horietan aldaketa ugari izan ditu eta gaur egun, bi bazkide berrik kudeatzen dute enpresa. “Enpresak egoera berrira egokitzen jakin du, eta unerik zailenetan dibertsifikazioaren aldeko apustua egin du, eta asmatu egin dute aurrrera egiten”, adierazi dute udal ordezkariak. Hala, enpresa modelo berri baten alde egiten ari da azken urteotan.

# ZORTZI SORMEN PROIEKTU BERRI GARATZE BIDEAN

**AURTEN ERE UDALA GUSTURA DAGO SORKUNTZA BEKAK HERRITARREN ARTEAN IZAN DUEN ERAGINAREKIN; LAGUNDUKO DIREN PROIEKTU GUZTIAK HERRIKO SORTZAILEEK EGINGO DITUZTE**



**B**ederatzi proiektu aurkeztu ziren aurtengo Sorkuntza Bekara, eta irizpide teknikoetara egokituta proiektuak zortzi zirela adostu ondoren, horien artean 12.000 euroko beka banatzea erbaki zuen epaimahaiak. Disziplina anitzetako proiektuak garatzen hasiak dira sortzaile berriak.

Josu Labaka Kultur batzardeburuak sortzaileei eskerrak eman nahi izan dizkie: “Eskerrik asko kultur sorkuntzaren ahaleginean buru-belarri ibili eta murgiltzeagatik”. Iaz sortu zen beka eta izan zuen arrakasta ikusirik, aurtengo Udalak bikoiztu egin du bekaren diru kopurua, eta 12.000 euro banatuko dira proiektuen artean. Ainara Larrañaga zinegotziak dio “sortzaileak azpeitiarrak eta gazteak” izateak garrantzia berezia duela: “Lagunduko diren proiektu guztiak azpeitiarrenak dira, eta sortzaileak gazteak dira. Horrek Azpeitiko kultur sorkuntzaren etorkizuna eta transmisioan garrantzia berezia izango

duela uste dugu, eta pozik gaude”. Kultur disziplina anitzeko proiektuak aurkeztu direla ere azpimarratu nahi izan zuen.

**BIGARREN EDIZIO HONETAN SORKUNTZA BEKA BIKOIZTU EGIN DA ETA 12.000 EURO BANATU DIRA PROIEKTUEN ARTEAN**

Beka horren ibilbidea Kultur Mahaia- rekin elkarlanean egin da, eta Xabier Gantzarain Kultur Mahaiko teknikariak “herritarrak lanera aktibatze- ko” zein garrantzitsua den azpimarratu nahi izan zuen. Sortzaileei plaza eskaintzeaz gain lanerako denbora irabazi eta bultzatzen duela ere gaineratu zuen.

## PROIEKTUAK BANAN-BANAN

- **FILM LABURRA” I FEEL HAPPY”.** Yuri Agirre, Eneritz Arzallus eta Ane Arenasek bi bizitzeko modu kontrajarriren inguruko film laburra osatuko dute. Agirrek azaldu zuenez gidoia osatzen ari dira eta abendu inguruan grabatzea dute helburu. Horretarako, 2.000 euro jasoko dituzte.
- **‘AZPEITIKO BASERRIAK ETA EMAKUME BASERRITARRAK INDUSTRIALIZAZIO GARAIAN’.** Ikus entzunezko dokumentala Lorea Seguiolak aurkeztu badu ere, talde lanean egingo da eta 1.500 euro jasoko ditu.
- **PETO PETUE.** Olatz Aguadok Azpeitian erabiltzen diren hitz eta esaeran ilustrazioak egingo ditu. Aguadok azaldu zuenez aspaldiko burutazio bat gauzatuko du bekaren bidez: “Burutazioa aspaldikoa da, eta Natulek herriko hitz eta esaerak jasotzeko lana



egina duenez, elkarlanaren emaitza izango da sorkuntza". Horretarako, 1.750 euro jasoko ditu.

- **EKAIN TXOU.** Pailazo ikuskizun berria prestatuko du Ekain Iburguren pailazoak. "Lehen ikuskizuna sortu nuenetik ideia mordoia izan ditut, eta horiei forma emanez ikuskizun berria osatu nahi dut datozen hilabeteotan", azaldu du Iburgurenek. Ekain Txourekin egin bezala, ikuskizun berria ere Azpeitian estreinatuko duela hitz eman du. 1.500 euro jasoko ditu.

- **KOROSAGASTI PROIEKTUA.** Baserrian gertatutakoak islatuko dituen filma. Asier Sustaetak azaldu zuenez Erabaki produkzioak faseka gauzatuko du proiektua, eta gidoia egingo dute bekaren bidez jasoko dituzten 2.731 euroekin: "Ikuskizunak ekoiztea oso garestia da, eta modu amateurretik haratago ekoiztea baduzu buruan oraindik eta garestiagoa.

Beraz, faseka gauzatu beharrean gaude gure proiektua", azaldu du.

**KULTUR DISZIPLINA  
ANITZETAKO ZORTZI  
PROIEKTUETARA BIDERATU  
DA AURTENGO SORKUNTZA BEKA;  
MUSIKA, PINTURA, PAILAZO  
IKUSKIZUNA, ZINEMA...**

- **DISKO GRABAKETA.** Erokomeri taldeak disko berria grabatuko du bekaren bidez. Martin Altuna taldekideak azaldu zuenez, dagoeneko 10 kantuko diskoa grabatu dute: "Trikiti munduari lotutako musika izango da, baina gauzatu berriak probatzen aritu gara, eta estilo propioa du diskak", zehaztu du Altunak.

Durangoko Azokaren bueltan aurkeztuko dute eta aurreratu du disko berria aurkezteko emanaldi bat eskainiko dutela Azpeitian. 1.000 euro jasoko dituzte.

- **DISKA GRABAKETA.** Trini Fox taldeak bederatzi kantuko diska grabatuko du. Dagoeneko grabatua dute stoner-rocka, punk-rocka eta rock alternatiboa nahasten dituen estilo propioko diskoa.

Bekaren bidez, 1.000 euro jasoko dituzte gastuak finantzatzeko.

- **PINTURA PROIEKTUA.** Irune Aramendik egunerokotasuneko behaketatik abiatuta marraztea eta kuadroak sortzea du helburu. Sortzen duenaren bidez ikusleen hausnarketa bultzatu nahi du.

Azpeitia eta inguruetan aurkeztuko dituen koadroak osatzeko 519 euro jasoko ditu.



## SOREASU AUZOKO ERABERRITZEA BUKATU DU UDALAK AZKEN KALEA KONPONDUTA



**S**oreasu auzoko 2 eta 5 etxe-atarien arteko kalea eraberritzeko obrak egin ditu udal. Saneamendua, azpiegiturak, errepidea eta espaloiak berrituko dituzte. Ia 130.000 euroko aurre-

kontua dute obrek, Altuna y Uria enpresak egingo ditu eta hiru hilabeteko epean bukatzea aurreikusten dute.

Azpeitiko Udalak azaldu duenez, auzotarrekin adostutako moduan

eraberrituko dute ingurua: "Udalak Denon artean prozesuaren baitan kale hori eraberritzeko proiektua egin zuenean bi alternatiba aurkeztu zizkien auzotarrei, eta haiekin adostu moduan eraberrituko da".

## BARRENETXE 5 ETA 7 ETXE-ATARIEN ARTEKO BI KALE BERRITZATU DIRA



**A**zken asteotan, Barrenetxe auzoko 5, 6 eta 7 etxe-atarien aurreko bi kaleak berriztatzen ari da Udal. Bi etxaldean aurreko patioak asfaltatu eta ibilgailuentzako aparkalekua margotuko dute. Guztira, 20.000 euro inguruko aurrekontua izango dute lan horiek.

Epe motzean, herrian beste asfaltatze lan batzuk ere aurreikusten ditu Udalak. Herrigunean, Harzua kalean San Martin egoitzatik zezen-plaza bitarteko zatia berrituko da datozen asteotan. Loiolan, berriz, Igarako errota inguruko errepidea.

# ZORU PUBLIKOA DUTEN GARAJEETAKO HEZETASUN ARAZOEI IRTENBIDEA EMAN ZAIE

**DAMASO PLAZAKO ZORUA ERABAT ERABERRITU ETA HAURREN PARKEA ERE EGOKITU DA; EUSKALHERRIA AUZOAN ORAINDIK ZORUA BERRITZEKO OBRETAN ARI DIRA**

**D**amaso plazaren zorua eta garajeetako sabaia konpontzeko obrak maiatzean hasi ziren, eta haurrentzako parke berria jartzearen faltan, obrak bukatu dira. Plazaren erabilera publikoa kontuan izanda, beste hainbat gunetan egin izan duen bezela aurrekontuaren %30ari egingo dio aurre Udalak.

Azken urteotan garajeetan hezetasunarekin dituzten arazoei irtenbidea emateko Damaso 1 eta 10 arteko etxe-atarietako bizilagunekin adostuta berritu da plaza. Plazaren eraberritzea pasa den maiatzaren erdialdera hasi zen, eta aurreikusi bezala lau bat hilabetea bukatu dira. Obra osoaren aurrekontua 515.000 euroakoa da eta Udalak %30a ordaindu du. Haurren parke berria jarriko da plazan, eta datozen asteotan ezarriko da.

## **EUSKAL HERRIAN ERE BAI**

Damaso auzoko plaza berritu eta egokitu bezela, Euskal Herria auzoko 40 eta 46 arteko zorua eta garajeetako sabaia konpontzeko obrak ere bukatzeaz dira. Auzo honetako plazaren erabilera publikoa da, eta beste hainbat gunetan egin izan duen bezela aurrekontuaren %30ari egingo dio aurre Udalak, hemengoan ere.

Garajeetan hezetasunarekin dituzten arazoei irtenbidea emateko Euskal Herria auzoko 40 eta 46 etxe-atarietako bizilagunekin adostuta berritzen ari dira plaza. Plazaren eraberritzea uda inguruan hasi zen eta bukatzeaz da. Obra osoaren aurrekontua 615.000 euroakoa da (Bez barne): “Udalak ezarrita duen irizpideari jarraituz aurrekontuaren %30a ordainduko du, legez gaineko zoladura ordaintzera bakarrik behartuta badago ere”, adierazi du Josu Labaka zinegotziak.



Herritarren parte hartze bidez,  
etorkizuna erabakitzen

# Herritarrek erabakita **Betharram berdea** eta **urdina** izango da

**849** parte hartzailetatik, **512** boto  
jaso ditu aukera irabazleak



Jarrai dezagun herria  
denon artean eraikitzen